



Arartekoaren 2013ko abenduaren 26ko ebazpena. Horren bitartez, haize parke bat baimentzeko administrazio-izapidetzea eta haize-energiaren inguruan gizartearen adostasunaren sustapena hizpide zituen kexa-espedientea amaitu da.

Aurrekariak

- Hainbat pertsonak erakunde honetara jo zuten gure iritzia eskatzeko orduko Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren jardunei buruz, 2011. urtean haize-parke batzuk baimentzeko administrazio-izapidetzea zela eta.

Zehazki, erreklamazioetako batek aurkeztutako alegazioek behar bezalako erantzunik jaso ez zutela baieztatu zuen, eta orobat azaldu zuen interesdunei ez zitzaiela jakinarazi Orozko eta Laudioen artean dagoen Jesuriko haize-parkea baimentzeko izapidetzea.

Erreklamazio horrek 2009ko maiatzaren 30ean Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailean aurkeztutako alegazioak aipatu zituen. Alegazioak proiektua baimentzeko eta Jesuriko haize-parkearen ingurumen-inpaktuaren deklarazioa egiteko jarraitutako administrazio-espeditentean egin ziren.

Kexagileak azaldu zuenari jarraiki, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak instalazio horretarako administrazio-baimena eman zuen, Energia eta Meategien zuzendariaren ebazpenaren bidez, 2011ko maiatzaren 31n EHAAn argitaratutakoa.

Kexagileak aitortu zuen sail horrek administrazio ebazpena jakinarazi ziola. Hala ere, pertsona horrek azaldu zuenez, jakinarazpenean ez zuen bere alegazioei emandako erantzunaren inguruko informaziorik jaso. Administrazio ebazpenak alegazioen aurkezpena eta erakunde interesdunak emandako erantzuna aipatu baino ez zuen egin.

Adierazi zuenari jarraiki, alegazioei banakako erantzuna eman ez izanak horien edukia ez ezagutzea ekarri zion, eta, beraz, ezin izan zion administrazio ebazpenari errekurtsorik jarri. Horregatik eskatu zuen Energia eta Meategien Zuzendaritzak alegazioei erantzun eta erantzuna jakinaraz ziezaiola. Era berean, informazio hori ebazpenaren zati bat izan behar zela esan zuen. Hori dela eta, egon litezkeen administrazio errekurtsioak jartzeko epeak ez lirarteke zenbatzen hasi behar informazio hori modu egokian jakinarazi arte.

- Bestalde, aurreko prozedurazko kontuaren osagarri gisa, Eusko Jaurlaritzaren energia politikari buruzko gai orokor bat mahai gainean jarri zuen. Jasotako erreklamazioek kezka adierazi zuten gure autonomia erkidegoan potentzia txikiko



haize-parkeak ugaritzen ari direlako, nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoko haize-energiaren Lurraldearen Arloko Planean –maiatzaren 14ko 104/2002 Dekretuak onartutakoan– aurreikusita ez egon. Haize-parke txiki horiek eta energia iturri berriztagarri horren inguruko beste kontu batzuek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeko plangintza sektoriala berrikusteko beharra ekarri zuten.

Erreklamazio horiek azpimarratu zuten Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak urratsak eman behar zituela haize-energiako Lurraldearen Arloko Planaren berrikuspena bultzatzeko, onartutako edo izapidetzen ari ziren potentzia txikiko parkeak ere barne har zitzan. Laburbilduz, Eusko Legebiltzarraren Haize-Energiaren Lurraldearen Arloko Planari (LAP) buruzko 2009ko ekainaren 18ko 4/2009 Ez Legezko Proposamena betetzeko beharra mahai gainean jarri zuten. Bertan, izapidetzen ari ziren haize-parkeen izapidetzea eteteko eta erakundeen eta gizartearen adostasuna lortu eta gero LAP berrikusteko beharra azpimarratu zen.

- Behin erreklamazio horiek izapidetzeko onartuta, orduko Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailera jo genuen, kexagileak Jesuri haize-parkea baimentzeko jarraitutako espedientean egindako alegazioei eman zieten izapideari buruzko informazioa eskatzeko.

Beste alde batetik, haize-energiaren plangintza zela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Haize-Energiaren LAPren berrikuspenaren izapidetzearen egoerari buruzko informazioa eskatu genuen, 2010eko maiatzean hasi baitzen.

Era berean, Eusko Legebiltzarraren 2009ko ekainaren 18ko 4/2009 Ez-Legezko Proposamenetik eratorritako neurriei buruz galdetu genuen. Zehazki, haize-ituna deritzonari buruz eta gizartearen adostasuna lortzeko egindako administrazio-izapideei buruz, baita, hala balegokio, hori egiteko publizitateko prozesuari eta herritarrek parte hartzeko prozesuari buruz ere.

- 2012ko maiatzaren 30ean, Eusko Jaurlaritzako Energia eta Meategien zuzendariaren txostena jaso genuen. Bertan, bi gaien berri eman zigun.

Jesuriko haize-parkea dela eta egindako alegazioen izapideari eta horren jakinarazpenari dagokienez, alegazioak haize-instalazioa sustatu zuen enpresari, berak erantzun zezan, bidali zizkietela azaldu besterik ez zuen egin. Horrela, enpresaren erantzuna administrazio-espedientean zegoen. Geroago, Energiaren zuzendariaren 2011ko apirilaren 6ko ebazpenak aipatu instalazioa baimendu zuen, eta kexagileari modu frogagarrian jakinarazi zioten.

Euskal Autonomia Erkidegoko haize-energiaren plangintzari dagokionez, haize-energiaren lurraldearen arloko bigarren planaren izapidetzearen egoera aipatu



zuen. Txostena egin zen unean, prozeduraren lehen etapak burututa zeuden. Hala, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren irismena zehaztu zuen erreferentzia-agiriaren igorpena jaso zuen. Era berean, lurraldearen antolamenduari buruzko txostena jaso zuen, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek xedatutako alorrean behar bezala sartzeko aurreikusitakoa.

Lehen etapa hori burutu ostean, txostenak azaldu zuen eremuak alde batera uzteko ingurumen-irizpideak definitzeko adostasuna bilatu zutela, agiriaren aurrerapena ahalik eta kokalekuen aukeraketa egokienarekin bukatzeko.

Haize-ituna delakoari dagokionez, azaldu zuen ez zela administrazio-agiri bat. Agiri hori printzipioen deklarazio instituzionala zen, autonomia erkidegoaren esparruan itundutakoa. Sinatu zuten erakundeek praktika politiko eta instituzionalean jarraitzeko konpromisoa hartu zuten, gai horretan zeukaten eskumenen alorraren barruan.

- Bidalitako informazio horren ostean, ez da jaso Jesuriko parkean baimendutako instalazioen gauzatzeari lotutako jardura gehiagorik. Era berean, ez da haize-energiaren LAPren izapidetzearen inguruko izapide gehiagorik jaso.

Edonola ere, kexagileak erakunde honen aurrean errepikatu zuen administrazio-jardun hori berrikusi behar dela, zeren eta administrazioak haren alegazioei emandako erantzuna ezagutzea galarazi baitio, eta horrek, bere ustez, ingurumen kontuei buruzko informazioa jasotzeko eta horietan parte hartzeko dituen eskubideak urratu direla esan nahi baitezake.

Aurrekari horiek gogoan izanda, egokia iritzi diogu kexa-espeditente horri buruzko gogoeta batzuen berri emateari, erreklamazio honen xedeaz.

Gogoetak

- 1. Ebazpenaren xedea.** Kexaren aurrekarietan deskribatutako gaiei jarraiki, ebazpen honek bi kontu jaso ditu: Alde batetik, Jesuriko haize-parkea baimentzeko administrazio-espeditentean kexagileek aurkeztutako alegazioei arrazoitutako erantzun bat emateko betebeharra aztertu genuen. Beste alde batetik, lurraldearen antolamenduaren egoera aintzat hartu genuen, Euskadin haize-parke berriak jartzeari dagokionez, gaur egun indarrean dagoen haize-energiaren LAPren egin litekeen berrikuspenaren aurreikuspenari jarraiki.
- 2. Haize-parkea baimentzeko espeditentean aurkeztutako alegazioei erantzuteko jarraitu den prozedura.** Aurkeztutako alegazioei dagokienez, kexagileak adierazi du ez duela erantzunik jaso. Jesuriko parkea baimendu duen administrazio



ebazpena jaso duen arren, ez ditu ezagutzen ezesteko arrazoiak, ezta alegazioei emandako erantzun zehatza ere.

Espedientean jasota dagoenaren arabera, ebazpen hori modu egokian jakinarazi zioten kexagileari. Edonola ere, alegazioen erantzunaren edukiari dagokionez, ebazpenak izapide hori baino ez du aipatu. Bederatzigarren puntuan honakoa adierazi da: *“Todas las alegaciones presentadas y la preceptiva contestación individualizada a las mismas por parte de la entidad interesada constan formalmente en el correspondiente expediente administrativo”*.

Ebazpenean ez dago informazio gehiagorik administrazioak alegazioei emandako berariazko erantzunari buruz. Era berean, ez da informaziorik eskaini egindako txosten teknikoaren gainean, ezta baimena eskatu zuen enpresak emandako erantzunaren gainean ere.

Jarraitutako prozedura baloratze aldera, maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretua aipatu behar dugu, Euskal Autonomia Erkidegoan haize-parkeetako haize-energiatik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena.

Dekretu horrek, 7. artikuluan, haize-parkeetarako administrazioaren baimena izapidetzea aipatu du. Instalazio horiek oinarrizko proiektua eta ingurumen-inpaktuaren azterketa jendaurreko informazio-erakustaldian jartzea eskatzen dute. Aurkeztutako alegazioak eta haize-parkearen sustatzailearen kontraalegazioak ingurumen-organora bidali dira ingurumen-inpaktuaren deklarazioa egiteko. Halaber, espedientea Energiaren Zuzendaritzak jakinarazi behar du, organo horrek onartu baitu oinarrizko proiektua.

Bidalitako espedientean dagoen informazioan, administrazioak soilik aipatu du alegazioen erantzuna instalazioaren enpresa sustatzaileak egin duela. Enpresaren erantzuna administrazio-espedienteari gehitu zaio, eta bertan 2011ko apirilaren 6ko behin betiko ebazpena adierazi da.

Hala ere, ebazpenean ez dago alegazioak (eta kontraalegazioak) baloratu edo erantzuteko administrazioaren txosten teknikorik. Era berean, ebazpenak ez du informaziorik erantsi interesdunen edo proiektuaren enpresa sustatzailearen alegazioak ezesteko edo aintzat hartzeko arrazoen inguruan.

115/2002 Dekretuak ez du ebazpenaren edukiari buruzko edo egindako alegazioei erantzuna emateko betebeharrari buruzko betekizunik jaso. Kasu horretan, herritarrak alegazioen erantzuna jasotzeko duen eskubideari oro har dagokionez Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio



Prozedura Erkidearen azaroaren 27ko 30/1992 Legearen aurreikuspenak kontuan izan behar dira.

3.- Administrazioetik alegazioen erantzun arrazoitua jasotzeko eskubidea.

Jendaurreko informazio-erakustaldi horretarako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 27ko 30/1992 Legeak 86.3 artikuluan jasotzen dituen aurreikuspenak hartu behar ditugu oinarri. Artikulu horrek hauxe jasotzen du:

*"Jendaurreko erakustaldiaren izapidean agertzen direnak ez dira, berez eta besterik gabe, interesduntzat joko. Nolanahi ere, izapide honetan alegazioak edo oharak aurkezten dituztenek **administrazioaren erantzun arrazoitua jasotzeko eskubidea** dute. Horrelakoetan, erantzun bakarra eman dakieke funtsean arazo bera agertzen duten alegazio guztiei".*

Gai hori garatzeko, komenigarria da Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia aipatzea, maiatzaren 7ko 2373/2008 epaian eta maiatzaren 16ko 1961/2008 epaian. Ebazpen judizial horiek administrazioaren erantzun arrazoitua jasotzeko eskubidearen gutxieneko edukia zehaztu dute, arrazoibide honen arabera: *"En el seno de los procedimientos de información pública de grandes proyectos de infraestructuras la Administración está ciertamente obligada a tomar en cuenta (para aceptarlas o rechazarlas) las alegaciones formuladas, pero no a comunicar o notificar una respuesta individual y singular, de contenido diferenciado, a cada uno de quienes alegaron, de modo que la omisión de esta respuesta así notificada genere la nulidad del acto resolutorio. Basta, a estos efectos, que en el informe sobre las propuestas se razone la elección de la alternativa acogida y que en el acto de aprobación del proyecto se expliciten las razones de la decisión en relación con las alegaciones presentadas, siendo este acto al que debe darse la publicidad necesaria, lo que el caso de autos ocurrió a través de su inserción en el Boletín Oficial del Estado."*

Hau da, eskubide horrek ez du ezartzen alegatzen duen pertsona bakoitzari jakinarazpen pertsonalizatu bat egiteko betebeharra. Aldiz, eskubide horrek proiektua onartu duen administrazio ebazpenak erabakiaren arrazoiak esplizita ditzala eskatu egiten du, aurkeztutako alegazioak bereziki aipatuz.

Jesuri haize-parkearen baimentzea dela eta, nabarmendu behar dugu administrazio ebazpenak alegazioen aurkezpena aipatu eta proiektuaren sustatzaileak alegazioei erantzun diela adierazi besterik ez duela egin. Hala ere, ebazpenak ez du azaldu administrazioak zergatik baztertu dituen edo, behintzat, zein den administrazioaren erabaki horren justifikazioa.



Garrantzitsua da gogoraraztea alegazioen eta kontraalegazioen (hau da, proiektuaren enpresa sustatzailearen jarreraren) balorazioa beti eta kasu guztietan organo eskudunari dagokiola, kasu horretan Energiaren Zuzendaritzari. Azken erabaki hori hartzeko, alderdi interesdunek egindako alegazioak eta dagokion lurralde-bulegoko zerbitzuek egindako txostenak aintzat hartu behar ditu. Alderdi interesdunek egindako alegazioen inguruko txosten tekniko hori 115/2002 Dekretuak berariaz aurreikusten du, eta funtsezkoa da aurkeztutako alegazioei buruzko administrazioaren erabakiak behar den bezala arrazoitzeko. Era berean, dokumentazio hori guztia administrazio-espeditentean egon behar da, eta interesdun orok eskuratu dezake espeditentea.

Bereziki aipatu behar da administrazioak berariazko erantzuna eman behar diela prozedurari lotuta baimena emateko prozeduran zehar alegatutako kontuei. Kasu horretan, informaziorako eta ingurumenaren arloan parte hartzeko eskubideari buruzko kontuek jasotako erantzun bakarra enpresak bere kontraalegazioetan eman duena da. Dena den, administrazio-organok eman behar die berariazko erantzuna gai horiei. Informaziorako eta ingurumen arloan parte hartzeko eskubideari buruzko kontuei ez die inolaz ere proiektuaren enpresa sustatzaileak erantzun behar, balorazio soil bat egiteaz edo bere iritzia adierazteaz gain.

Erantzunaren arrazoiak ezagutzearen garrantziak harreman zuzena du administrazio egokirako eskubidearekin. Kasu horretan, horrek ekartzen du administrazioak hartutako erabakia behar bezala arrazoitzeko eta tartean dauden pertsona guztien parte-hartze egokia bermatzeko betebeharra edukitzea. Era berean, eskubide hori 30/1992 Legearen 89. artikuluan jasotako betebeharren artean dago. Esan bezala, betebeharrak horiek dira agertutako gai guztiei erantzutea eta administrazio ebazpena nahiko argi arrazoituta egotea.

Administrazioaren erabaki batzuen eskumeneko tartearen edo izaera arautuaren kaltetan izan gabe, azpimarratu behar dugu administrazio prozeduretan parte hartzeko izapide hori oso garrantzitsua dela. Auzitegi Gorenak ildo jurisprudentziala ezarri du –beste batzuen artean, 2009ko otsailaren 16ko epaian- eta informazio eta entzunaldi publikoko izapideari lotuta eska daitekeen gutxieneko edukia zehaztu du. Izapide horrek ez du bakarrik hauxe barne hartzen: eragindakoei espeditentearen berri ematea. Horrez gain, prozedura hau jarraitu behar da *“diálogo, participación y respeto”*.

Illo berean, 2003ko otsailaren 25eko epaiak zera adierazi zuen *“el trámite de audiencia es propio de una Administración dialogante, participativa y respetuosa con los ciudadanos. Pero esas cualidades sólo se producen cuando se cumplen los aspectos formales y materiales que dicho trámite exige. De este modo, el mero hecho de poner en conocimiento de los afectados el expediente no es*



cumplimiento del trámite de audiencia. Para que este trámite se entienda cumplido se requiere que se produzca "diálogo", "participación" y "respeto". Pero nada de esto hay cuando la Administración no realiza acto alguno, ni siquiera en trámite de recurso, que demuestre que lo alegado ha sido tomado en consideración de alguna manera en la decisión final" .

2009ko otsailaren 16ko Auzitegi Gorenaren epaiak ezarri du, entzunaldi izapidea betetze aldera, ez dela nahikoa izapidea abian jartzea, alegazioak aintzat hartzea beharrezkoa baita. Hau da: *"El exacto cumplimiento de tales tramites exige no solo la mera formulación y recepción de los diversos alegatos de esas entidades y particulares, sino la reposada lectura de los mismos por la Administración y su contestación específica sobre las razones que lleven a la aceptación o rechazo de tales alegaciones"*..

Azken finean, aipatu behar dugu administrazioaren ebazpenek administrazioak egindako txosten teknikoak gaineratu behar dituztela, baita Energia Zuzendaritzak aintzat hartu dituen arrazoiak ere, herritarren elkarrizketa, parte-hartze eta errespetuari lotutako irizpideekin behar bezalako balorazioa egite aldera.

Egoera horrek babesgabetasuna eragin dezake alegazioak aurkezten dituzten pertsonen artean, batez ere, kexa horretan azaldu duten moduan, ez dakitenean zein den euren ekarpenak gaitzesteko arrazoa, bereziki, beste eskubide batzuen gauzatzeari dagokionez, administrazio errekurtsio bat edo administrazioarekiko auzi-errekurtsio bat aurkezterakoan gertatzen den bezala.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu, aurreko gogoeten kaltetan izan gabe, Ararteko erakundeak hainbatetan gomendatu diela herri-administrazioei informazio publikoko izapideetan egindako alegazioei berariaz eta modu pertsonalizatuan erantzun diezaietela.

Gure iritziz, herritarren partaidetzaren printzipioa hobeto errespetatzen da biztanleek egindako alegazioei berariazko erantzuna ematen bazaie eta horrekin batera dagokion txosten teknikoa aurkezten bada. Erantzun hori banaka eta modu berdingabea jakinarazi beharko da, gutxienez, alegazioak aurkeztu dituen pertsonak berariaz halaxe eskatu baldin badu.

- 4. Haize-energia sortze aldera lurralde plangintzaren berrikuspena gauzatzeko ikuspegiak.** Haize-parkeen administrazio baimena emateko jarraitu beharreko prozedurei buruzko kontuak behin aztertuta, egokitzat jo dugu haize-energiaren lurralde plangintzaren berrikuspenari lotutako aurreikuspenak aipatzea.

Kexagileek funtsean mahai gainean jarri zuten kontua da potentzia txikiagoko haize-parke berrien izapidetzearekin jarraitu aurretik lurralde plangintza



berrikusteko beharra dagoela; izan ere, parke horiek ez daude indarrean dagoen haize-energiaren lurralde antolakuntzari buruzko aurreikuspenen barruan.

Kexa aurkeztu duten pertsonak Eusko Legebiltzarrak onetsi zuen Haize-Energiaren Lurraldearen Arloko Planari (LAP) buruzko 2009ko ekainaren 18ko 4/2009 Ez Legezko Proposamena betetzeko beharra mahai gainean jarri zuten. Bertan, izapidetzen ari ziren haize-parkeen izapidetzea eteteko eta, erakundeen eta gizartearen adostasuna lortu eta gero, LAP berrikusteko beharra azpimarratu zen. Zehazki, lehenengo puntuan hauxe aipatu da *“Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio eten dezala bidean diren parke eolikoaren tramitazio administratiboa –bai indarrean dagoen Energia Eolikoaren Lurralde Arloko Planaren ondoriozkoena, bai miniparkeena–, hala, etenaldiak dirauen bitartean, martxan diren planei buruz erakundeen artean eta gizartearen adostasuna lortu ahal izan dadin eta, egun tramitatzen ari diren parke eolikoaren ingurumen-eragina ebaluatzeko prozedurei dagokienez, azken urteotan onetsitako ingurumen arautegia aplikatu dadin.”*

Geroago, une horretan Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila zenak Euskal Autonomia Erkidegoko Haize-Energiaren Lurraldearen Arloko 2. Planaren izapidetzea abian jartzea erabaki zuen.

Agiri horretan haize-estrategiaren plangintzarako printzipioak jaso ziren, haize-ituna delakoak barne hartzen dituenak, eta zenbait erakundek, hala nola, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek, partekatu dute. Adierazpen horretan Eusko Jaurlaritzak Natura 2000 Sarean eragina zuten haize-energiari buruzko LAPko kokalekuen izapidetzea berrikustea edo etetea proposatu du, behintzat eremu horien kudeaketa planak burutu arte eta kontserbazio bereziko eremu bihurtu arte. Natura 2000 Sarearen barruan ez dauden potentzia txikiko haize-parkeentzako gainerako kokalekuak, berriz, izapidetzen eta ebaluatzen ari dira, indarrean dagoen haize-energiari buruzko LAPren aurreikuspenei jarraiki. Hala, Jesuri, Ganekogorta edo Mandonegiko haize-parkeak horren adibide dira. Parke txiki horiek euren ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren eta energia administrazioaren baimenaren menpe zeuden, baita gainontzeko administrazio baimenen menpe ere.

Kontu horri dagokionez, gaur egun haize-energiari buruzko Lurraldearen Arloko Plana berrikusteko prozedura ez da izapidetzen jarraitu. Azken urtetako egoera ekonomiko, energetiko eta sozialak, bere aldetik, haize-parkeen sustapena geldiarazi du estatu osoan. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Jesuri bezala baimena daukaten haize-parkeek edo Ganekogorta bezala izapidetze fasean dauden parkeek ez dute ezarpen prozesuarekin jarraitu.



5. Gizarte eta erakundeen adostasuna energia berriztagarrien sustapenari dagokionez. Energiaren egoera berri horrek balorazio eta proposamen fasean jarraitzen du, euskal botere publikoen esku, bereziki, haize-energiaren LPPren berrikuspenari dagokionez.

Orain arte, Euskal Autonomia Erkidegoak energiaren sektorearen plangintza estrategikoko ereduak aukeratu du 2000, 2005 eta 2010 Euskadiko Energia Estrategien eta indarrean dagoen 3E 2020 delakoaren bitartez. Dena den, haize-energiaren testuinguruan, Eusko Jaurlaritzak 2002. urtean haize-energiaren lurraldearen arloko plan bat onetsi zuen haize-parkeak (8 haize-erota baino gehiago eta 10 MW baino potentzia handiagoarekin) ezartzeko lurzorurik egokiena zein den zehazteko helburuarekin. Momentuz ez da energia plangintzari lotutako bestelako izapiderik idatziz jaso, hala nola, energia berriztagarrien gaineko plan autonomikoak, ekonomia iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 81. artikulua aipatu dituenak.

Testuinguru horretan haize-energiari buruzko LPP berrikusteko prozesua haize-parke berriak ezartzeak ingurumenean eduki dezakeen inpaktua behar bezala ebaluatzeko aukeratzat jo behar da. Arlo horretako esperientzia ezagutza baliagarria da parkeek eta euren inguruneek biodibertsitatean eragin ditzaketen kalteak eta ingurumen arriskuak behar bezala ebaluatze aldera, paisaia babeste aldera eta azpiegitura horien ondorioek barne hartzen dituzten beste jarduera ekonomiko batzuentzat.

Modu berean, energiaren plangintza hori baliagarria izan beharko litzateke egun indarrean dagoen plangintza egokitzeko haize-energiak dakartzan aukerak eta onurak aintzat hartuta. Testuinguru horretan itsasoko haize-parkeen (off-shore) potentzial handiagoa azpimarratu dezakegu, baita Armintzan garatzen ari den proiektua, egun dauden haize-parkeak (on-shore) berriz sustatzeko aukerak edo eremu urbanizatueta instalatu diren haize-parke txikiak ere, tentsio baxuan sare elektrikoari konektatzeko aukera ematen dutenak.

Haize-energiaren aldeko apustu hori energia berriztagarrien iturrien multzoa garatzeko eta sustatzeko estrategia zabalago baten barruan kokatu behar da. Energia berriztagarrien aldeko apustua (marea-energia, fotovoltaikoa, geotermikoa edo biomasa) energia fosilen (ikatz, petrolio eta gasa) iturriek eragindako energia kontsumitzeak barne hartzen duen ingurumen-inpaktuaren eta aldaketa klimatikoaren ondoriozko eskakizun bat da. Europar Batasuneko energia politiketan loteslea den konpromiso bat dago berotegi-efektuko gas-isuriak % 20 murrizteko (apirilaren 23ko 406/2009/CE Erabakia) eta energia kontsumo osoaren % 20 iturri berriztagarrietatik etor dadila (apirilaren 23ko 2009/28/CE Zuzentaraua, iturri berriztagarrietatik datorren energiaren erabilera sustatzeari buruzkoa).



Energia eta ingurumen apustu horren ondoriozko betebeharrak Euskadi Energia Estrategia 2020 (3E 2020) delakoan jasotako euskal energiaren plangintza osatzen dute. Aipatu beharra dago zenbait arrazoiren ondorioz, hamarkada honetarako ezarritako energia berriztagarrien helburuak lortzea oso zaila ari dela izaten egungo testuinguru ekonomiko eta sozialean. 2005. urtean lortutako berriztagarrien kontsumoaren % 5,7ko kuota handitu egin zen 2010. urtean (% 8,1). Hala ere, EEEk 2012. urteari lotuta emandako datuen arabera, berriztagarriei lotutako portzentaje hori Euskadin murriztu egin da (% 7,6). 3EEE Euskadi 2020 delakoak berriztagarrien kuotaren gaineko aurreikuspenak jaso ditu amaierako kontsumoa aintzat hartuta: % 14 2020. urtean eta % 30 2030. urtean.

3EEE 2020 estrategiak aitortu du gehien hobetu daitezkeen bi arloak hauek direla: lurreko haize-energiarena (LPPren berrikuspenaren menpe) eta energia fotovoltaiarena.

EEEren energia datuen arabera, 2012. urtean, instalatutako haize-energiaren potentzia geldirik egon da 2007. urtetik (153 MW). Hori ez dator bat 3E 2010 estrategian 2010. urterako jasotako aurreikuspenekin. Azken horiei erreparatu, 624 MWkoa izan beharko litzateke-eta. 3E 2020an lurreko haize-potentzia berria gaineratzeari dagokionez, honako datu hau ageri da: 580 MW, ikuspegi objektibotik abiatuta. 2014. urtearen atean, esan dezakegu errealitate onargarritik urrun dagoela. Bestalde, fotovoltaiaren kasuan, teknologia fotovoltaiakoko instalazioentzako ordainsarien aurretiko esleipen araubidea bertan behera utzi izanak eta instalazio berriztagarrien energia autokontsumitzeko mekanismoen definiziorik ezak (hala nola, balantze garbia) iragarri dute datozen urteetan garapena mugatua egongo dela, etorkizun iraunkor bat lortzeko funtsezkoa den energiaren sektore horren aldeko apustua egin ezean.

Haize-energiaren garapen berriei buruzko aurreikuspenei dagokienez, azpimarratu behar da energia-politika hori garatzen has dadila gizartearen adostasuna beharrezkoa dela. Gizarte eztabaidak Euskal Autonomia Erkidegoko energia eta lurralde estrategiaren zenbait helburu aintzat hartu behar ditu, hala nola, haize-energiaren eta beste iturri berriztagarrien sustapena, berriztagarriak ez diren iturrien kalterako; erabaki publiko horien ekonomia, gizarte eta ingurumen inpaktuaren ebaluazioa eta ingurumen irizpideak zehaztea eskatutako azpiegiturak ezartze aldera. Botere publikoek kontuan hartu behar duten beste kontu bat hauxe da: gizarte parte-hartze programa egoki bat abian jarri behar dute, parte-hartzailea, irekia eta gardena, herritarren eta gaiaren inguruko interesa daukaten elkarteen ikuspuntua gaineratzen duena. Hori guztia haize-itunak defendatzen zuen erakundeen erabakian islatutako xedapenekin batera joan behar da.



Termino horietan, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Kontseiluaren gogoetak jaso ditugu, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoan energia berriztagarrien garapenaren inguruko 2011ko abenduko txostenean islatutakoak. Erakunde horrek lurreko haize-energiaren sustapenaren inguruko arazoak gainditzeko zera gomendatu du: euskal administrazioek modu irmoan jardun behar dute gizartearen onarpenaren eta erakundeen arteko koordinazioaren arloan.

Berriztagarriak ez diren iturriak gehiegi erabiltzeak eta horien menpe egoteak gizartearen hausnarketa eskatzen du, hau da, eragile politiko, sozial eta, oro har, herritar guztien arteko hausnarketa. Horren adibide bat Euskadin haustura hidraulikoaren (fracking) inguruan sortu den gizarte gatazka da. [Euskadin haustura hidraulikoari buruzko ebazpenean](#) gizarte eztabaida irekiaren beharra mahai gainean jarri genuen. Bertan, aurrezteko eta energia eraginkortasunari lotutako politiken gaineko azterketa egin genuen. Horrez gain, berotegi-efektuko gasen murrizketa eta energia iturri berriztagarrietatik datorren energiaren kuota handitzeko modua ere jorratu genituen.

Laburbilduz, Eusko Legebiltzarraren aginduarekin bat eginez, bigarren LAP egiterakoan egon den atzerapenaren kaltetan izan gabe, euskal herri-administrazioek haize-energiari buruzko adostasuna sustatzen jarraitu behar dute, betiere, ingurumenaren arloko irizpideekin bat eginez eta 2020. urterako energia berriztagarrien kuartari lotutako xede estrategikoak lortzeko helburuarekin.

Ondorioa

- Herri-administrazioek erantzun egokia eman behar diete informazio publikoko izapideetan aurkezten diren alegazioei. Jesuriko haize-parkearen baimentzearen kasuan, esan beharra dago, administrazio espedientean dagoen informazioa kontuan hartuta, administrazioaren ebazpenak administrazioak egindako txosten teknikoak eta interesdunen alegazioei erantzuteko aintzat hartu ziren arrazoiak barne hartu behar zituela.

Alegazioei berriazko erantzun egokirik ez emateak babesgabetasun egoeran utzi ahal ditu alegazioak aurkezten dituzten pertsonak, izan ere, kexan aditzera eman duten moduan, administrazio errekurtsio bat edo administrazioarekiko auzi-errekurtsio bat aurkezterakoan ez zekiten zein zen euren ekarpenak gaitzesteko arrazoiak.

- Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailak, tartean dauden gainerako administrazioekin batera, Euskadin energia estrategiaren plangintza bultzatzen jarraitu behar dute, energia berriztagarriak



oro har eta bereziki haize-energia sustatzeko neurri pizgarri eraginkorrak hartuz, 3E 2020 Estrategian azaldutako helburuen betetzea ahalbidetze aldera.

Energiaren plangintza burutzeko lan horren baitan, euskal herri-administrazioek haize-energiari dagokionez gizartearen, erakundeen eta herritarren adostasuna sustatzen jarraitu behar dute, betiere, ingurumenaren arloko irizpideekin bat eginez eta 2020. urtean energia berriztagarrien kuota handitzeko helburu estrategikoen testuinguruaren barruan.